

URRUÑAKO KABALKADA-ZINTZARROTTSA DELA ETA SENPEREKO LARRE GELAN EGIN MINTZALDIA.

Jaun-andereak, arratsalde on denei.

Hasi aitzinetik erran behar dugu bihotzez eskertzen dugula hunat, zuen arterat, 2014ko ekainaren 7an eta 15ean Urruñan egin ginuen kabalkada-zintzarrotsa nolakoa izan zen eta zertarako egin ginuen azaltzera etor gaiten igorri diguzuen gomita. Plazera da guretzat.

Aspaldian zen gure herrian horrelako bat egiteko gogoia. Urruña beti izan da herri euskalduna, euskarari atxikia eta euskal kulturaren sustatzaile. Euskal bestak, euskal kantuak, bertsoak, antzerkiak, gure dantzak..., beti izan dira gure artean eta gure bizimoduaren lekuko. Denek badakigu European izan ditugun bi gerla haundiek Ipar Euskal Herrian sufrimendu handia sortu zutela, gazteen lorea moztu zutela eta ondorioz gure mintzaira eta kulturaren gibelatzea ekarri zutela. Ez dugu ahortzi nahi Pariseko gobernamentuak euskararekin eta frantses estatuan mintzo diren hizkuntza gutxituekin izan duen eta zorigaitzez oraindik duen politika ustela. Uztaritzen badakite untsa horretaz.

Elkarteetan, herritarren artean, lagun artean... maiz mintzatzen ginen hortaz, baina ur haundietan sartzera zelakoan gerorako uzten ginuen beti, bazen beldur bat horrelakoetan sartzeko azkeneko aztarnak gure aita-amen oroitzapenetan atxikitzen baiginituen. Urteak joan eta urteak etorri, azkenean hainbat Urruñarrek kabalkada eta tobera egitea deliberatu ginuen.

Hortako Berttoli eta Hazia elkarteek talde eragile bat sortu zuten. Talde horrek harremanak tinkatu eta zabaldu zituen Urruñako gainerako talde, elkarte eta herritarrekin. Lehen deialdi publikoa 2012ko urriaren 12an egin ginuen eta bertara hurbildu ziren guztiei gure asmoa agertu genien. Hortik aitzina proiektua finkatu ginuen. Bi koordinatzaile nagusi hautatu ginituen eta zenbait batzorde sortu : tobera --edo gure herrian erraiten dugun bezala-- zintzarrotsa idatzi behar zutenak, proiektua aitzina eramaiteko beharrezko sosa xekatu behar zituztenak, dantzariak trebatu behar zituztenak, jantziak josi eta prestatu behar zituztenak, kantariak, bertsolariak eta musikariak, antzerkilariak, propaganda batzordekoak, antolakuntza lanetan aritu behar zirenak eta abar.

Hastapenetatik biziki argi ginuen gure kabalkada-zintzarrotsa herritarrendako egin nahi ginuela, urruñarrendako bereziki, egia da, baina baita gure herrira gure ikusgarriaren ikusterat hurbilduko ziren bestelako jendeendako ere. Urruñarrak bildu nahi ginituen proiektu kolektibo baten inguruan, eta ber denboran nahi ginuen euskara izatea herritarren arteko lotura nagusia. Argi ikusten ginuen euskara dela euskal kulturaren eta euskal populuaren lokarri nagusia. Erran behar dugu proiektu huntarat jende ainitz bildu zela, gehienak euskaldunak baina baita, euskaraz ez jakin arren, euskararekin eta euskal kulturarekin sentimendu berezia zutenak.

Lana eta libertimendua euskaraz egiten zen nagusiki. Euskaraz ez zakitenek indar bat egin zuten ulertzeko eta euskal giroan sartzeko. Denentzat biziki ona eta aberatsa izan zela uste dugu. Balio izan zuen jendeen arteko ezagutza eta adiskidetasuna pizteko

eta zabaltzeko. Proiektu horren inguruan zaharrak eta gazteak, emaztekiak eta gizonak, euskaldunak eta erdaldunak aritu ginen lanean, denek elgarrekin bat eginik.

Lehen erran bezala, gure proiektua herritarrendako idekia nahi ginuen, bai parte hartzen zutenendako eta bai ikusle eta entzule gisa herrira ikusterat hurbilko ziren guziendako. Ez ginuen proiektu hau elite intelektual batendako egin nahi, herritar guziendako beizik eta hori argi ikusi da bai zintzarrotseko antzerkian eta baita dantzari eta kantariekin ere. Ez dugu nehoiz profesionalik xekatu. Bakotxak ahal izan duena egin du ahal izan duen modurik onenean.

Horrela aritu ginen bi urte luzez eta azkenean, 2014ko ekainaren 7an eta 15ean gure ikusgarria jende aitzinean plazaratu ginuen. Bi aldietan pilota- plaza bete zen eta hori guretzat gauza haundia izan zen gure bi urteko lanaren ordain gisa hartu baiginuen. Gaur, zazpi hilabete pasa direlarik, kontent gira egindako lanaz eta kabalkada-zintzarrotsari esker gure herrian atxeman ginuen giza kohesioaz. Ikusgarri hunek adiskidetasuna eta elkarren artean egindako lanaren fruituak ekarri baititu Urruñara. Hori bera zen gure nahia eta herrian erain den hazia. Ez dugu uste hazi hau lur idorretan galdurik egonen denik, haatik, zinez sinesten dugu heldu diren urteetan proiektu eta elkar-lan berriak martxan abiarazteko baliagarri izanen zaikula. Hori da proiektu huntan parte hartu ginuen guzien nahikari eta esperantza.

Aspaldian gure herrian galdua zen kultur ekitaldia berpiztu nahi ginuen eta ber denboran belaunaldi gazteei identitate transmisioa eskaini nahi izan diegu. Proiektu hau ez ginuen Urruñari begira bakarrik egin, euskal kulturaren sugarra Lapurdiko kostaldeko herrietara zabaldu nahi ginuen. Guretzat xoragarria da ikustea inguruetakoko herrietan holako proiektuak prestatzen ari direla. Denen artean euskal kultura plazara ekarriko dugu.

Herritarrek bihotzez eskertu dute proiektu hunen inguruan egin lana eta atxeman den lagunarte ederra. Hortako erraiten dugu oinarriak finkaturik ditugula proiektu berrien egiteko. Hala bada hala bedi. Geroak du erranen.

Milesker hemen gure azalpen hauek entzuten izan zaizten guziei. Milesker berriro ere.

Senperen, 2015eko urtarrilaren 24an.